

# **Jean Etcheverry-Aintchart (1914-2003), notario euskalduna<sup>1</sup>**

Zinez tamalgarria, euskaldunok euskara bera lanbide-arloetan aspalditik erabili duten hainbat profesionalen berri ez izatea. Gure historia behar bezala ezagutzen ez dugulako seinale dudabakoa.

Badira, hala ere, Hego zein Ipar Euskal Herrian, ogibide desberdinetan gogotsu aritu diren jardule euskaldunak. Bestek beste, zuzenbide-sailean. Bertara hurbildu ahala, abokatu, notario eta abarrekoak erraz datoz gure burura, euskararekiko atxikimenduaren erakusle.

Adibide bat aipatzearren, horra hor Louis Etcheverry legetaria, Baionako *Eskualduna* (1887) euskarazko kazetaren sortzailea edota Ritou notarioa, bera ere kazeta horren lehen idazleetariakoa izana.<sup>2</sup>

---

<sup>1</sup> Eskerrak eman behar, bene-benetan, Sabino Arana Fundazioaren Andoni Olabari eta Irune Zuloagari, lantxo hau prestatzeko orduan eskuzabal jokatu dutelako nirekin. Hemen diren hainbat xehetasun eta ezaupide haiei zor diet. Orobat Jean Etcheverry-Aintchart notarioaren seme diren Etcheverry-Aintchart anaiei, abokatu (Beñat) eta notarioari (Jean), beraiek zaintzen eta gordetzen baitute, urte askoren buruan, behinolako euskal eskribautzaren lekukoa.

<sup>2</sup> LAFITTE, P. : *Nafar lapurtar idazle aipatuena*. Aturri idazlanak. Elkarlanean. Donostia, 2001, 39-41 orr.

Jakina da, eta behin eta berriro errepikatua, haatik, ez direla legearen eta justiziaren esparruak euskararen aldeko eta zerbitzuko. Nolanahi ere, salbuespenak beti salbuespen, eta horien barruan sartzen da, eskubide osoarekin, Jean Etcheverry-Aintchart notario euskalduna.

Berrikitan zendua (2003), berak eta beraren familiak agertzen dituzte ofizio bati estekadura sendoa eta euskaldun herritarren aldeko joera estimagarria, betidanik izan baitira halakoak, herri euskalduna eta frantses lege-mundu juridikoaren arartekoak.

Nor Jean Etcheverry-Aintchart? Jaiotzez baigorriarra (1914), odolez notarioaren endazkoa, haren aita, aitona eta gaine-rako asabek beti izan baitute eskuan fedemailearen zeregina eta egitekoa. Bizi luze baten fruitua da haren ekarria, orrialde haueta-ra alderatzen ahaleginduko naizena.

Notarioa eta euskalduna, horra hor Hego Euskal Herriko askoren harridurarako, haren eguneroko izatea eta eitea.

Notarioek, eta, oro har, lege-munduko jendeak egundoko ospe okerra eta makurra izan dute euskaldunen artean. Jakintsu bezain makur, mila zirrikitu bilatu ohi dituzte horiek, jende xehearen sinesteetan, eurena aurrera atera ahal izateko herritar sotilaren gainetik.

Horraino, omen, notarioen sona eskasa. Ezin argiago esanda, bestalde, Nafarroa Behereko Jean Etxepare mediku eta euskal idazleak bere artikulu zoragarrietan. Hartara, laudorio besterik ez du hark notarioentzat, hasieran behinik behin: *Emagun notari bat, hura baita, eginak zaizkon agurrez, mundu huntako gizon eskolatuetan lehenetarik, ez niz ausartatzen erraitera "lehena", nahiz hala zautan: arren diruz eta ontasunez da maiz harekin solasa...*<sup>3</sup>

---

<sup>3</sup> CHARRITTON, P. : *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak. II Mediku-solas*. Elkar. Donostia, 1985, 244. or.

Lausenguak esan ondoren, badatoz, arrapaladan, kritika zorrotzak eta erruki gabekoak: *Nor da ohartzen notari batek baduenez bururik ala ez; edo, baduelarik, hutsa duenez ala jakitateaz betea? Nehor ez. Anitzak dire bizkitartean kondu baten atxikitzen ez akitenak; paper ahulik baizik ez dutenak egiten ; bertzeek eskuetaratu eman dirua moldegaizki derabilatenak; bainan kopeta dute, aztaparra legun, aho ederra, eta jendea badoa heien ganat, xoraturik, trunbilka.*<sup>4</sup>

Are gaitzesgarriagoa da euskal idazlearentzat, gure legelarien hizkera, eta hitz egiteko molde eta manera: *Notari, abokat eta tribunaletako bertze jaunez ez dut erranen deusik. Ele ederez beren jokotrien estaltzeko hok ez dute parerik. Norat ere baitago haizea, eta harat itzul: hori da begira dezaketen lege bakarra. Hanbat gaixtoago berentzat, bertzela balire: elez jendekilakoaren atxikitzetik baitute beren ogia.*<sup>5</sup>

Esan gabe doa aurreko horiek ez zaizkiola bat ere ondo egokitzen Jean Etcheverry-Aintchart notarioari. Haren argazkia edo portreta Emile Larre euskaltzainak egin zuen joan den urtean, Herria astekari euskaldunean. Bi gider ikusten zituen Larrek Nafarroa Behereko Baigorri azken 25 urteetan: Minjonnet jaun mera edo alkatea eta Jean Etcheverry-Aintchart notario zendu berria: *Horiek oro, herrian, eta notaria bietan, izan dira zinez herriko gizonak, oro ezagutzen, familien berri jakinki, aitzinagoko ohiduretaraino, familiako arranjamenduetan baitezpadako, konfiantzazko laguntzaileak, ala ez ote da lehengo denbora hori itzaltzen hacia, orain, paper-mende hau aldiz lege bakar eta lege hotz bilakatzen ari den denboran?*<sup>6</sup>

Nabarmen denez, notario baigorriarrak hautsi egin zuen topikoa, eta kezka biziaz aritu zen herri euskaldunari zerbitzu egi-

---

<sup>4</sup> Ibidem.

<sup>5</sup> CHARRITTON, P. : *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak. II Mediku-solas*. Elkar. Donostia, 1985, 281. or.

<sup>6</sup> E. L.: "Jean etcheverry-Aintchart, baigorriar notari eta hautetsi ohia zendu da", *Herria*, 2003-ko Abendoaren 4-koa, 2733. zenbakia, 1. or.

ten eta horren nortasuna zaintzen, ordezkatzeko politikoaren lanak ere baztertu gabe.

Laburbilduta, hiru ikuspegi desberdin bereiz daitezke haren jardunean.

- 1 Euskal zuzenbidearen sustatzailea
- 2 Euskal Herriaren ordezkaria
- 3 Euskaltzalea

## **1.- Euskal zuzenbidearen sustatzailea**

Hona hemen Jean Etcheverry-Aintchart baigorriarrak eraikusten duen lehen ezaugarria. Izan ere, 300 urte baino gehiago luzatu da beraren familian notarioaren ofizioa. Hortaz, zuzeneko lekuko dira horiek, batetik, notario euskaldunen hurrenkerarena, eta, bestetik, euskaldunek historian zehar bizi zituzten foruena, Iraultza frantsesak ezabatu eta birrindu zituenak.

Foruak foru, ez ziren Lapurdiko, Nafarroa Behereko edo Zuberoakoak, motz eta urri, ugari eta esanguratsuak baizik. Hor ere, aldaki batzuekin, aspaldiko baserriaren batasuna. Hortxe ere, oinordekoa aukeratzeko askatasuna edota tronkalitatea. Betiere, xede edo helburu jakin batera abiatuta, hots, belaunaldiz belaunaldi etxea batasunean eta osotasunean eskualdatzeko bideak bermatzea.

Horiek horrela, 1804. urteko Kode Zibilak, Napoleon Bonaparteren mendean, bestelako bidea ekarri zuen, eta, horren ildotik, oinordetza zatitu beharra, seme-alaba guztiei senipartea eman nahian. Horrek, bistan da, baserriaren haustura zekarren, eta horri egin zioten aurre, notarioak lagun, Iparraldeko euskaldunek. Hitzarmenak, ezkontza-kontratuak... izan ziren, garai luze batez, Kode Zibilaren letra azpian osterantzeko sistemari eusteko eta baserria bere horretan iraunarazteko baliabideak.

Horien frogak dira Jean Etcheverry-Aintchart eskribauaren hainbat lan. Zerbait aipatzearren, ekar dezadan hona Eusko

Ikaskuntzaren VII. Kongresuan aurkeztu zuena. Izenburu zuen *Usages locaux relatifs a la conservation du bien familial dans le Canton de Saint-Etienne de Baigorri*,<sup>7</sup> eta asmo zehatza, hain justu, jendaurrean erakustea nola erdiesten zen, lehen esan legez, etxeko ondarea oso-osorik eskualdatzea belau-naldi, Kode Zibilaren oztopoen gainetik. Azalpen horrek, alabaina, geroago beste ikertzaile askoren testu eta lanak<sup>8</sup> ekarri ditu egundaino.

Gaia, edozein modutan ere, zuzenbidearen begirada erabereztzailearen aurkakoa, berori baita zantzurik irtenena, egun bizi dugun lege idatzi eta bateratuaren gainetik tokian tokiko usadioei eusteko.

Aiurri berekoak dira berak ondutako artikuluak, Baigorriko haranaren inguruan, geografia eta giza bizimoduak egoki zertuz. Besteak beste, *Vallée de Baigorri et Pays Quint*<sup>9</sup>, Eusko Ikaskuntzen VII. Kongresuan eta *La vallée de Baigorri sous la Révolution*<sup>10</sup>, Eusko Ikaskuntzen VIII. Kongresuan aurkeztuak.

---

<sup>7</sup> Oraintsu argitaratu dira kongresu horren aktak in LARRONDE, J-C. (Argitarazlea): *Eusko Ikaskuntzaren VII. Kongresua. Biarritz, 1948*. Eusko Ikaskuntzak. Donostia, 2004. Etcheverry-Aintcharten testua in II. liburukia, 649-651. orr. Orobat in *Bulletin du Musee Basque* (1er trimestre 1965, n° 27, 25-30 orr.)

<sup>8</sup> Aipatzekoak dira, besteak beste, LABATUT, P.: *Les contrats de mariage dans le pays basque rural sous le seconde empire*. Memoire de maitrise d'histoire. Toulouse-Le Mirail, Octobre, 1979. Jean Etcheverry-Aintchart notarioaren izen bereko semea ere, in «La transmission juridique de la maison basque: B. Apres la Révolution, l'etxe encore, l'etxe toujours»; *Etxea ou la maison basque*, Lauburu, Donibane-Lohitzun, 1980, 61-81 orr.

<sup>9</sup> Oraintsu argitaratu dira kongresu horren aktak in LARRONDE, J-C. (Argitarazlea): *Eusko Ikaskuntzaren VII. Kongresua. Biarritz, 1948*. Eusko Ikaskuntzak. Donostia, 2004. Etcheverry-Aintcharten testua in II. liburukia, 643-648. orr. Orobat in *Bulletin du Musee Basque* (1er trimestre 1965, n° 27, 25-30 orr.)

<sup>10</sup> Oraintsu argitaratu dira kongresu horren aktak in LARRONDE, J-C. (Argitarazlea): *Eusko Ikaskuntzaren VIII. Kongresua. Baiona, Uztaritz, 1954*. Eusko Ikaskuntzak. Donostia, 2004, 207-216 orr. Orobat in *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* (1954, n° 70, 107-124 orr. eta 1955, n°71, 1-10 orr.)

## 2.- Euskal Herriaren ordezkaria

Aurrekoak gorabehera, ez zuen notario baigorriarrak aukerarik galdu herriaren ordezkaritza harro-harro eramateko, Frantziaren erakunde eta kontseilu askotan.

Bigarren Gerra Handian izan eta gero (Alemanian atxilo ere bai), Jean Etcheverry-Aintchartek bere politika-munduko ordezkaritza hasi zuen. MRP taldearen banderapean eta euskaldun izaerari ukorik egin gabe, Pariseko Parlamentuaren bidea hartu zuen baigorriarrak 1945. urtean. Han aritu zen sutsu, Frantziako Konstituzio berria idatzi behar zuen batzordean, hain zuzen ere, euskaldunen nortasuna aintzakotzat hartua izan zedin. Oposizioaren jarlekuetatik bildutako testigantzak *Herria* astekarian papereratu zituen.

Bada hor tartean, egun jakin-mina sor dezakeen kontua. Izatez, bazen garai hartan, gerra bukatu eta berehalakoan, euskaldunen aldeko mugimendua eta bultzada, autonomia zabal baten egitasmopean. Horren bidegileen artean, Marc Legasse iparraldeko eragile ezaguna. Hark eskuratu zion Jean Etcheverry-Aintchart diputatuari eite desberdineko testua: *Le Statut du Pays Basque dans la République Française – projet de loi*.

Diputatu berriak laster onartu zuen eskaintza, eta Frantziako Parlamentuan eztabaidatzeko tenorean jarri. Berak esandakoaren ildotik, adoretu jokatzeke zina egin zuen: *Estando un fin de semana en mi casa de Baigorri-recuerda- un grupo de amigos de Iparralde me propusieron presentar a debate un proyecto de Estatuto de Autonomía para el País Vasco Continental. Me sentí orgulloso por la oferta que me realizaron y por poder ser yo quien defendiera el Estatuto en la Comisión correspondiente del Parlamento francés.*<sup>11</sup>

Testua bera, dena den, erabat argigarri zen hasieratik bururaino. Oinarri zuen euskaldunei zor zitzaizkien eskubideak, histori-

---

<sup>11</sup> *Deia*, 1991 urtarrilak 19, osteguna, 13. or.



koak nahiz berezkoak edo naturalak. Euskaldunak, berez, badira zibilizazio bat, nazio bat, eta Frantziaren barruan, nazio gutxiengo bat.

Esanez, honetara zioen haren lehen artikulua:

*Art. 1.- Le Pays Basque (Eskual-herria) formé par les arrondissements de Bayonne et de Maleón (anciennes provinces de*

*Labourd, de Soule et de Basse-Navarre) constitue una entité naturelle et juridique avec personnalité politique propre, et comme tel on lui reconnaît le droit de former un Département particulier dans l'unité de la République Française avec laquelle il vivra selon les règles de la loi de relations concertées dans le présent statut.*

*Le présent statut a donc pour objet d'établir d'accord avec le parlement français les modalités juridiques que permettront de consacrer dans la loi la dite personnalité naturelle et d'assurer la prospérité du Pays Basque, la liberté, le bien-être matériel et spirituel de ses habitants.*

Esamolde horren kariatara zetozen, gerora ere, berori garatzeko baliabide eta erakundeak. Azpimarratzekoak dira, bide beretik, botere betearazlea, legegilea eta judiziala bertan jasotzea, eta, are azpimarragarriagoa, Baionan Foru Auzitegia sortu beharra, Kode Zibila aldatu eta antzinako foru-legeak aintzat hartu behar zituen. Bordelen zein Tolosan, euskal foruzuzenbidearen katedrak sortzeko eginbeharra ere ezartzen zuen testu horrek.

Euskara ofizialtasunaren jabe ibiliko zen Euskal Herrian.  
*Art.13:- La langue nationale des basques est l'Eskua. Elle*

*sera reconnue officielle dans les mêmes conditions que le français.* Esan eta egin, aitorten horrek zekarren, ondorio gisa, euskara bigarren hezkuntzan onartzea, Bordelen nahiz Tolosan euskararen katedrak sustatzea, eta berez harrigarriena, Hego Euskal Herriaren unibertsitateekin hitzarmenak egitea, mugaz haraindiko eta honaindiko tituluak baliobestekoak izan zitezen.

Frantziako Parlamentuan eztabaidatu ere ez zen egin testu hori. Hurrengo hauteskundeetan, Jean Etcheverry-Aintcharten izena agerian ez, hautagaien hurrenkeran. Bai, ordea, bertako Departamendurako hautuan. Horrenbestez, Baigorriko kantonamenduaren kontseilari orokorra izan zen hogeita bost urtez (1951-1976).

1963. urtean *Enbata* mugimenduaren sortzailea da, eta 1964. urtean kantonamenduaren bozetara haren itzalpean aurkeztu da, inoizko batean hautagai abertzale batek bildu duen boz kopururik handiena bereganatuz. Harrezkero ere, PNVren irizkide erakutsi zuen bere burua, batez ere *Ager* aldizkariaren bitartez.

Hitz laburretan esateko, iritzi sendoak zituen politikan, euskaldun abertzale sentitu zuen bere burua eta demokrata-kristauen lorratzetik egundo ere ez zen desbideratu.

### **3.- Euskaltzalea**

Hirugarren alor honetara dator Jean Etcheverry-Aintcharten euskalduntasuna, bizitzaren joan-etorri guztien gainetik nabarmenduko zaiona. Ekintzak ez ezik, hitzak ere esan zituen hark euskararen alde.

Biziki maite zuen euskararen izatea; ardura handiarekin aditu haren beherakada eta kemen zoliz bultzatu euskaldunak oro, euskara landu eta zabal zezaten.

Aukera aparta eskaini zion horretarako Sabino Arana Fundazioak. Erakunde horrek bizitza oso bateko norabiderako saria eman zion, 1990. urtean. Berak adierazitakoen artean, honako hau, gaztelaniaz argitaratua: *Sobre todo el euskera está*



*retrocediendo – se lamenta- y ya muy pocos jóvenes hablan nuestro idioma. Aunque debemos ser constructivos y mantener la esperanza. Todavía hay posibilidad de recuperarlo, sobre todo a partir de que ya se ha conseguido que las escuelas públicas de Iparralde hayan empezado a enseñar euskera como una asignatura más o que funcionen experiencias tan positivas de medios de comunicación en euskera como Radio Irulegi.*

Arrangura berezia, beraz, notario baigorriarrarena euskararentzat. Hala aitortu zuen Emile Larrek ere, hura hil ostean, haren familiaren euskalduntasuna goratzen zuela: *Erran behar da familia horrek, amaxi behere horietakoa zuelarik, eta haur guziak eskolatuak, euskara beti zaindu eta atxiki duela*<sup>12</sup>

Jean Etcheverry-Aintchartek, bestalde, garaikide izan zituen euskal kulturaren izen handiak. Beraiekin bat egin zuen euskalgintzaren arloan, eta Ipar zein Hego Euskal Herrian adiskidantza sakonak egin zituen. Halaxe aipatzen zuen berak, lehen esan legez, Sabino Arana Saria jaso zuenean: *Eskerrik asko, Jaunak, ene izena Jose Miguel de BARANDIARAN jaunaren izenaren ondotik finkatu baiduzue sari eder horren izen lerroan. Jaun ospetsu eta goxo horrek adi dezala hemendik aspaldiko adixkide batek igortzen dakon agur beroena. Eskerrik asko, Jaunak,*



*lokarri berri batez estekatu baidituzue, gure Euskal-Herri maitean, Hegoalde eta Iparralde. Bai, segur, bozkariotan dutala ene bihotza... Bertzaldetik: ene sahetsean falta*

<sup>12</sup> E. L.: “Jean etcheverry-Aintchart, baigorriar notari eta hautetsi ohia zendu da”, HERRIA, 2003-ko Abendoaren 4-koa, 2733. zenbakia, 1. or.

*ditut lagun frango, onak, maitagarriak, eta maite nituenak, Jaun Goikoak bere ganat deitu dituenak. Ez luzatzeko, aipatuko ditut bakarrik biz-pa-hiru izen: Lehenik, Euskadiko Jaun buruzagi ohiak: Aguirre eta Leizaola jaunak, nik baino hobeki ezagutu dituzienak (nahiz Aguirre Jauna, plazer handirekin ikusi dugun Baigorri 1948-an, Euskaltzaleen biltzarran); izen horiek eman eta nola ez aipa Mathieu eta Saint-Pierre jaun apezpikoak? Eta zinezko Jaunetan nizanean, behar ditut hiru izen eman nahiz Euskal Herriaz grina guti izan duten, bainan enetako aita on batzu izan direlaketz: Robert Schuman, Edmond Michelet eta René Coty. Gauden urbilago. Aipa ditzagun jakintsunetan zinezko jakintsunak: René Lafon, jaun erakaslea, Alemanian enekin presoner egona sobera denbora, Pierre Narbaitz, jaun Bikario Jenerala, Pierre Lafitte, jaun kalonja. Huna beraz hiru izen. Bainan badakizue lerro berean ezarri behar dela laugarren bat, ene adixkide berezia, denek ezagutzen zinutena. Nor ba? Eugène Goyheneche, Ustaritzekoa.*

Hurrean ere, Jean Etcheverry-Aintchart da gure Euskal Herrian hain ohiko izan ez diren gizabanako horietarikoa, alegia, lanbidez gogotsu jardun arren, herria bera eta horren ezaugarriak (hizkuntza, legeak...) bazter utzi ez dituzten horietarikoa.

Halakoxeak behar dira, egun ere, euskara aurreratzeko orduan, esparru juridikoan zein osterantzekoetan. Salbuespenak goratu behar badira ere, salbuespenen zokondotik atera behar dira, salbuespen izatetik jokamolde arrunt bihurtu arte. Eginkizun horretan, oraingoz bederen, baigorriar notario euskaldun honen eginahalek ez dute besterik merezi gure goresmenak baino.

**Andres Urrutia**